

JARDUERAK DINAMIZATZEKO, BALIABIDEAK HARTZEKO ETA BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN BEREZKO EGINKIZUNAK GARATZEARI DATXEZKION LAN ADMINISTRATIBOAK 2017an EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1) KONTRATUAREN XEDEA ETA NORAINOKOA

Enpresa bat kontratatzea jarduerak dinamizatzeko, baliabideak biltzeko eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren berezko eginkizunak garatzeari datxezkion lan administratiboak egiteko zerbitzua bete dezan, 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra bitartean.

Zerbitzu horrek honakoak bilduko ditu:

- a) Fundazioaren dinamizazio-jardueren diseinua, plangintza, antolamendua eta exekuzioa.
- b) Baliabide ekonomikoak biltzea sorrerako helburuak garatzeko eta lortzeko.
- c) Fundazioaren berezko eginkizunak betetzeko behar diren lan administratibo eta teknikoak egitea.

BIZKAIA-BIZKAIALDE Fundazioa irabazi asmorik gabeko entitate bat da, zeinak amaierako helburu gisa baitu Bizkaiko kirola sustatzea eta garatzea, errendimenduko kirolari lehentasunezko arreta eskainita, bereziki gisa guztietako baliabide ekonomikoak bilduz eta lehenengo laguntza publiko eta pribatuak lortuz, Bizkaiko kirolarien programak finantzatzeko erabiliko dituen laguntzak, hain zuzen ere.

2) KONTRATUA EXEKUTATZEKO GIZA ETA GAUZA BALIABIDEAK

Enpresa adjudikazio-hartzaileak konpromisoa hartzen du kontratuaren xedea zuzen garatzeko behar diren giza (pertsonek bi gutxienez) eta gauza baliabide guztiak jartzeko. Enpresa horren eskumenekoak izango dira langile horiekiko harreman juridikoak eta lanekoak eta kontratuaren xedea zuzentasunez eta eraginkortasunez betetzeko beharrezko gerta daitezkeen pertsonen ordezkatzak.

Gauzak horrela, jasota uzten da BIZKAIA-BIZKAIALDE Fundazioak, ondorio guztietarako, ez duela inolako lan loturarik entitate adjudikazio-hartzaileko lantalde profesionalarekin.

Halaber, enpresa adjudikazio hartzaileak egoitza sozial edo establezimendu bat eduki eta identifikatu beharko du, eta hartatik egin beharko ditu zerbitzua emateko beharrezkoak diren lan guztiak.

3) AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Honakoa izango da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

-Fundazioaren jarduera-programaren proposamena, haren balorazio ekonomikoarekin. Proposamen horrekin batera, aurreikusitako jarduera guztien deskribapen xehea aurkeztu beharko da, bai eta jarduera horiekin lortu nahi diren helburuen deskribapen xehea ere.

-Baliabide ekonomikoak biltze aldera egingo dituen jardueren kronograma.

Bilbon, 2016ko irailaren 29an

Sn.:Lorea Bilbao Ibarra
Bizkaia Bizkaialde Fundazioko patronatuaren presidentea

JARDUERAK DINAMIZATZEKO, BALIABIDE EKONOMIKOAK BILTZEKO ETA BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN BEREZKO EGINKIZUNAK GARATZEARI DATXEZKION LAN ADMINISTRATIBOAK 2017an EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO EZAUGARRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN TAULA

A.- KONTRATUAREN XEDEA

Enpresa bat kontratatzea jarduerak dinamizatzeko, baliabideak biltzeko eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren berezko eginkizunak garatzeari datxezkion lan administratiboak egiteko zerbitzua bete dezan, 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31era bitartean.

B.- SUSTATZAILEA

Bizkaia Bizkaialde Fundazioa

C.- KONTRATAZIO ORGANOA

Patronatuko presidentea

D.- LIZITAZIORAKO AURREKONTUA ETA BALIO ZENBATETSIA

Lizitazio-aurrekontua: 100.000,00€
% 21ko BEZa: 21.000,00€
Guztira: 121.000,00€
Balio zenbatetsia –BEZa kenduta–: 100.000,00 €

E- URTEKO ORDAINKETAK:

2017ari dagokion urteko ordainketa bakarra.

Kontratuaren prezioaren ordainketa honela egingo da:

- %75^a dagokion hilabeteko faktura aurkeztu eta beronen onarpenarekin.
- Gainontzeko %25eraino, babesletzak lortzeko uanean izandako emaitzen arabera, honako irizpideak jarraituz:
 - Entitate babesle berrietatik lortutako diru aportazioen %10
 - Jadanik Fundazioan dauden entitatebabesleen diru aportazioen hazkundearen %10.
 - Fudazioa dinamizatzeko egindako jardueretan lortutako gairikinen %10.

F.- IZAPIDETZEA

Arrunta.

G.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Negoziatua.

H.- NEGOZIATZEKOAK DIREN ALDERDIAK

- Prezioa.
- Jarduera programa proposamena. Berau Fundazioaren helburu eta beharrezanez egokitu beharko zaie, eta balorazio ekonomikoa eroan beharko du. Proposamenari atxikiko zaio aurreikusitako ekintza guztien deskribapen xehea eta dituen helburuak.
- Baliabide ekonomikoak biltze aldera egingo dituen jardueren kronograma.

I.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen.

J.- BEHIN BETIKO BERMEA

Adjudikazio-zenbatekoaren % 5, BEZa kenduta.

K.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ezin izango dira prezioak berrikusi.

L.- ALDAGAIK BAIMENTZEA

Ez dira onartuko.

M.- EXEKUZIO EPEA

Zerbitzua emateko kontratua exekutatzeko epea 2017ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2017ko abenduaren 31ra artekoa izango da, biak barne.

N.- LUZAPENETARAKO AUKERA

Ez da halakorik ezarri.

O.- EXEKUZIO TOKIA

Ez da halakorik ezarri.

P.- BERMEAREN EPEA

Ez da bidezkoa.

Q.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Gonbidapenean adierazitakoa.

R.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA

Rekalde Zumarkalea 30-1.a, 48009 Bilbao.

S.- PUBLIZITATE GASTUAK

Ez da bidezkoa.

T.- KAUDIMENA EGIAZTATZEKO MODUAK

- KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA.

- 1) Irizpidea: lizitatzailerak amaitutako azken hiru urteen artean negozio-bolumen handiena izan den urteari dagokion negozioen urteko bolumen bat egiaztatuko du.
- 2) Gutxienerako betekizuna: bolumen handiena izan den urteko negozioen urteko bolumenaren zenbatekoa honako honen bestekoa edo handiagoa izango da: 100.000,00 (BEZa sartu gabe)
- 3) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: I. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena.

*Erantzukizunpeko adierazpena betetzea:

- Onartu diren eta enpresaburua inskribatuta egon behar den merkataritzako erregistroan edo erregistro ofizialean gordailutu diren urteko kontuetan jasotzen diren balioak adieraziko dira. Egiaztapenak egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak dagokion erregistroan dauden datuak erabiliko ditu.
- Arrazoi baliodun batengatik lizitatzailerak ez badauzka ez onartuta ez gordailututa amaitutako azken hiru urteen artean bolumen handiena izan duen urteari dagokion urteko kontuak (adibidez: dagokion erregistroan kontuak aurkeztu beharrik ez izategatik, edo enpresa sortu berria izategatik.), orduan, arrazoi hori jasota utziko du adierazpenean.
- Merkataritzako erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek eta aurreko paragrafoan aipatutako arrazoi balioduna adierazi duten enpresaburuek, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeke, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpeneko 303 eta/edo 390 ereduak edo baliokideak eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortpeneko 200 ereduak edo baliokidea aurkeztuko dute, erantzukizunpeko adierazpenaz gainera.

- **KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA**

- 1) Irizpidea: kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanen berdinetan edo antzekoetan lortutako esperientzia.
- 2) Gutxienerako betekizuna: zerbitzu horiei dagokienez azken bost urteen artean exekuzio handiena izan den urtean exekutatu gisa egiaztatu behar den urteko zenbateko metatua honako honen bestekoa edo handiagoa izango da: 50.000,00 € (zenbatekoa jarri, BEZa sartu gabe).
- 3) Eskaintza onuragarriena aurkeztu duen enpresak honako dokumentazioa helarazi behar ddiogu: Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanen berdinen edo antzekoen zerrenda, azken bost urteen artean exekuzio handiena izan den urteari dagokiona. Zerrenda horretan, lanen zenbatekoak, datak eta jasotzaile publiko zein pribatuak jaso behar dira (II. Eranskina). Zerbitzu edo lan horiek egiaztatzeke, eskumena duen organoak emaniko edo oniritzitako ziurtagiriak aurkeztu behar dira, jasotzailea sektore publikoko erakundea denean; jasotzailea subjektu pribatua denean, berriz, organo horrek emaniko ziurtagiria edo, halako agiririk ez bada, enpresaburuaren adierazpena. Zerrendako zerbitzu batzuen jasotzailea Bizkaiko Foru Aldundia bada, ez da beharrezkoa izango zerbitzuon egiaztagiria aurkeztea.

U.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

www.bizkaialde.eus

V.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

1.- ORDAINTZEKO MODUA

Zerbitzuaren ordainketa hilabetekako ordainketen bitartez egingo da, hilero behar den faktura aurkeztuta.

2.- GIZA BALIABIDEAK

Erakunde esleipendunak modua izan behar du zerbitzu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz emateko (ahoz eta idatziz). Horretarako, kontratu honetan ezartzen den zerbitzua emateko bideratu behar dituen gutxienerako giza baliabideetatik (hau da, 2 lagunetik) batek euskarazko prestakuntza izan behar du, eta euskarazko titulua (2. HE) aurkeztu beharko du enpresak hori egiaztatzeke.

3.- LANEN KOORDINAZIOA ETA IKUSKATZEA.

Lanaren garapena Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren ikuskaritzapean eta honekin koordinatuta egingo da.

Kontratuaren arduraduna: Carlos Sergio Achotegui

Telefonoa: 94.406.8747.

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko enpresa-jarduketan koordinazioa: Lanak Bizkaiko Foru Aldundiaren lantokiren batean garatuko dira.

Bai

Ez

Bilbon, 2016ko irailaren 29an

Sn.:Lorea Bilbao Ibarra
Bizkaia Bizkaialde Fundazioko patronatuaren presidentea

GONBIDATUKO DIREN ENPRESEN ZERRENDA

1.- CUSTOMSPORT (CIF Nº. B-95661658)

Harremanetarako pertsona: José Ramón Garai
Telefonoa: 688631596 / 946426435
Helbide elektronikoa: j.garai@customsport.es
Camino Capuchinos nº 6-3ºD
48013 Bilbo

2.- ASFEDEBI (CIF Nº: G-48621692)

Harremanetarako pertsona: Carlos Lasa
Telefonoa: 620915015 / 944423960
Helbide elektronikoa: presidencia@asfedebi.com
Martín Barua Picaza kalea, 27, behe.
48003 Bilbo

3.- GUEDAN SERVICIOS DEPORTIVOS (CIF Nº A-48224224)

Harremanetarako pertsona: Oscar Zabala
Telefonoa: 649922144 / 944398010
Helbide elektronikoa: ozabala@guedan.com
Capuchinos nº 6-3ºD
48013 Bilbo

Bilbon, 2016ko irailaren 29an

Sn.: Lorea Bilbao Ibarra
Bizkaia Bizkaialde Fundazioko patronatuaren presidentea

TXOSTENA

GAIA: JARDUERAK DINAMIZATZEKO, BALIABIDEAK BILTZEKO ETA BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOAREN BEREZKO EGINKIZUNAK GARATZEARI DATXEZKION LAN ADMINISTRATIBOAK EGITEKO ZERBITZURAKO KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioak jarduerak dinamizatzeko, baliabideak biltzeko eta Fundazioaren berezko eginkizunak garatzeari datxezkion lan administratiboak egiteko zerbitzua kontratatzeko espedientea abiarazi nahi du, 2016 urterako, honako gehieneko prezioarekin:

Lizitazio-aurrekontua: 100.000,00 €
% 21ko BEZa: 21.000,00 €
Guztira: 121.000,00 €

Aipatutako zenbatekoa hilabetero ordainduko da

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 22.1 eta 109. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta haietan ezarritakoarekin bat, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak beharrezkotzat jotzen du kontratua egitea, bere xede instituzionalak betetzeko, eta, zehazki, jarduerak dinamizatzeko, baliabideak biltzeko eta Fundazioaren eginkizunak garatzeari datxezkion lan administratiboak egiteko.

Kontratuaren izapidetzea arrunta da eta adjudikazio-prozedura negoziatua, Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren kontrataziorako barne jarraibideetan ezarritakoaren arabera –Fundazioko Patronatuaren 2012ko maiatzaren 30eko bileran onetsi ziren jarraibide horiek eta 2015eko ekainaren 03an eta azaroaren 13an egindako bileretan aldatu ziren-.

Hori guztia dela eta, bidezko da espedientea abiaraztea, behar den kontratua izenpetu dadin.

Bilbon, 2016ko irailaren 29an

Sn.: Lorea Bilbao Ibarra
Bizkaia Bizkaialde Fundazioko patronatuaren presidentea

I. ERANSKINA.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: ENPRESAREN KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

Lizitazioaren xede den kontratuaren helburua⁽¹⁾:

_____ jaunak/andreak (NAN zk./AIZ/PASAPORTE
zk.: _____), _____ enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa (IFK:
_____),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNAREN PEAN:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

1.- Ondoren adierazitako datuak guztiz bat datozela onartutako eta erregistroan gordailututako urteko kontuekin eta lizitatuak amaitutako azken hiru urteetan bolumen handiena izan duen urteko ekitaldiari dagozkiola.

Kontuak gordailutu diren ERREGISTROA	EKITALDIA	NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZa kanpo):

2.- Ondoren zehazten den arrazoi balioudun batengatik, lizitatuak ez dauzkala ez onartuta ez gordailututa amaitutako azken hiru urteetan bolumen handiena izan duen urteko ekitaldiari dagozki urteko kontuak (adibidez: dagokion erregistroan kontuak aurkeztu beharrik ez izategatik, edo enpresa sortu berria izategatik.). Arrazoa:

.....

3.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiazteko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitopeneko 303 eta/edo 390 ereduak edo antzekoak eta Sozietateen gaineko Zergaren aitopeneko 200 ereduak edo antzekoak aurkeztu duela eta arrazoa hau dela (jarri X bat):

- Enpresaburu izatea, kontuak merkataritza-erregistroan inskribatu beharrik ez duena.
- Aurreko paragrafoan adierazitako arrazoi baliouduna

Erantsitako dokumentazioa, BEZari edo Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa.	EKITALDIA	NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZa kanpo):

Hala jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut, _____(e)n, 2016ko _____, ____ (e)(a)n.

(Lekua, eguna eta enpresaren sinadura eta zigilua)

⁽¹⁾ Jarri kontratuaren xedearen izen osoa, KARATULAKO A.-KONTRATUAREN HELBURUA atalean agertzen den moduan.

II. ERANSKINA. EGINDAKO ZERBITZUEN ZERRENDARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Lizitazioaren xede den kontratuaren helburua⁽¹⁾:

_____ jaunak/andreak (NAN zk./AIZ/PASAPORTE
zk.: _____), _____ enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa (IFK:
_____),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNAREN PEAN

Kontratuaren helburu diren zerbitzu edo lanen berdinetan edo antzekoetan lortutako esperientzia, ____ urteari⁽²⁾ dagokiona, beheragoko zerrendan adierazitakoa da:

ZERBITZUA EDO LANA ⁽³⁾	Aipatutako urtean exekutututako ZENBATEKO OSOA (BEZa kanpo)	Jasotzailea	Honako honek emandako egiaztagiria:
Z ₁			
Z ₂			
Z ₃			
Z ₄			
Z ₅			
Z ₆			
Z _n			
Aipatutako urtean exekutututako ZENBATEKO OSOA (BEZa kanpo)	BATURA		

(1) Jarri kontratuaren xedearen izen osoa, KARATULAKO A.-KONTRATUAREN HELBURUA atalean agertzen den moduan.

(2) Adierazi azken urteen artean zeinetan eman edo egin den zerbitzu edo lan gehien.

(3) Adierazi zerbitzu edo lanaren titulu osoa.

Hala jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut, _____(e)n, 2016ko _____, ____ (e)(a)n.

(Lekua, eguna eta enpresaren sinadura eta zigilua)

